

SAIOAREN AMAIERA: ONDORIOAK

- **Mugikortasunaren arloan asko aurreratu da Bilbon azken urteotan.** Oinezkoentzako bideak egin izanak eta garraio publikoa hobetu izanak zirkulazioa minimizatzen lagundu dutela uste dute. Hala ere, **aurrera jarraitu** behar da; asko dago hobetzeko.
- **Adostasun handia dago** pertsona nagusientzat mugikortasunari dagokionez **lehentasunak zein diren erabakitzerakoan. Etorkizunera begira, egoera bera** irudikatzen dute.
- **2030erako imajinatzen duten egoera** errealitatean ahalik eta gehien **betetzea** da garrantzitsuena.
- Udalerriko **planifikazioak parte-hartzean oinarrituta egotea eta herritarrentzat irekiak izatea** eskertzen dute.
- **Mugikortasun-politikak diseinatzerakoan ezinbestekoa da adineko pertsonen parte hartzea,** azken batean, pertsona guztiek biziko duten egoera baita zahartzaroa.
- Pertsona nagusiak **pozik daude** mundu guztiaren bizi-kalitatea hobetuko duen **HMJPan parte hartzeagatik.**
- **Adineko pertsonen elkarteak prest daude** beharrezko diren prozesu guztietan **parte hartzen jarraitzeko.**